

DIRU ITURRIAK

PRODUKTUA EKOIZTEA:

Produktua ekoizteko orduan, hainbat gastu edukiko ditugu. Material garestiak izango dira, izan ere, primerazko material dira. Gutxi gora behera 75€ kostatuko digu produktua ekoiztea. Hala ere, geroz eta produktu gehiago ekoitzi geroz eta merkeagoa aterako zaigu produktua, hau da, eskala ekonomiaren ondorioz merkeagoa atera daiteke produktua.

PRODUKTUAREN PREZIOA:

Guk gure diru sarreraren zati handi eta bakarra produktua saltzen izango da, izan ere, horretarako egiten dugu gure produktua. Bakarrik gure produktuan zentratuko gara, horregatik gure produktutik lortuko ditugu diru sarrerak . Gure helburu nagusia, etekin maximoa ateratzea da produktua saltzen.

FINANTZIAMENDUA:

Gure produktua finantzatzeko hainbat aukera ditugu. Prestamo bat hartu dezakegu, pertsona batek gure enpresan inbertitu dezake eta horrela gure produktua finantziatu dezake, eta bukatzeko eta gure aukerarik gustokoena “Partner” bat aurkitzea da. Horrela bien ezagutzak partekatu ditzakegu eta enpresa aurrera atera. Ezagutzak partekatzeaz gain, gure enpresa finantziatu dezake. Horrela ez genuke prestamo bat hartu behar eta ezta ez genuke beharko gure enpresan inbertitzeko pertsona bat.

Partner bat edukitzeak hainbat abantaila eta desabantaila ditu, horien hartean hauek:

Abantailak: Partnerrak emandako dirua ez dugu bueltatu behar prestamo bat balitz bezala. Inbertsio handi bat egiten du Partnerrak horrela ez dugu prestamo handi bat hartu behar.

Desabantailak: Partnerra gure bazkidea izango da, nahiz eta batzuetan abantaila izan, desabantaila izan daiteke. Erabakietan parte hartu dezake eta hori perjudiziala izan daiteke. Ekonomikoki ere, diru portzentaila bat emango beharko diogu gure Partnerrari.

Gure produktua ekoizteko orduan hainbat gastu edukiko ditugu, horien artean kostu finkoak eta kostu aldakorrak.

